

# DONOSTIA KULTURA

## Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana

2024-2027



# AURKIBIDEA

1 SARRERA.....	3
1.1. Marko juridikoa.....	3
1.2. Donostia Kulturaren testuingurua .....	6
2 PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK.....	7
2.1 Plangintzaldi berriaren gidalerroak .....	7
2.2 Planaren metodologia, egiturak eta urratsak .....	8
3 DIAGNOSTIKOA.....	9
4 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA.....	14
4.1 Eragin-eremua .....	14
4.2 Eragin-epea.....	14
4.3 Planaren erronkak eta helburu estrategikoak .....	14
4.4 Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila ....	16
5 2024-2027KO PLAN ESTRATEGIKOA .....	17
6 KUDEAKETA PLANA .....	20
7 PLANAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA.....	22
8 PLANAREN KOMUNIAKZAIOA .....	23

## 1 SARRERA

86/1997 Dekretuaren bidez, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zitzairen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztiei, baita hori gauzatzeko jarraibideak ere. Horrela, 1990. urtean, EAeko Administrazio Orokorraren I. Plangintzaldia ezarri zen, eta 2023an VII. Plangintzaldira iritsi gara.

Azken urteetako plangintzaldiek euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratzeko kudeaketa-eredu batera ekarri gaituzte. Ardatz nagusietako bat da legeak erakundeei ezartzen dizkien eginkizunak betetzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

Lehen Plana onartu zenetik 33 urte pasatu dira eta hamaika aurrerapen egin dira, baina kanpo zein barne euskararen erabilera badago oraindik zer hobetua hizkuntza ofizialen kudeaketa bikainaren bidean.

Testuinguru horretan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskara-planen egitura berria zehaztu du VII. Plangintzaldirako: Kudeaketa eta Erabilera Markoa Euskararen Normalizaziorako (aurrerantzean, KEMEN). Eredu berria da, eta metodologia ezberdin bati erantzuten dio, bai planteamenduan, baita aplikazioan ere.

Plana diseinatzeko aipatutako KEMEN metodologia kontuan hartu da, horretarako kudeaketa-egitura berriak sortu dira eta plana elkarlanean diseinatu da.

### 1.1. Marko juridikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, **Euskararen Erabilera Arautzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen** bitartez, euskararen erabilera soziala sustatzeko politika arautu zuen. Lege horretan xedatzen da herritar guztiek eskubidea dutela herri administrazioarekin dauzkaten harremanak nahi duten hizkuntza ofizialean izateko. Horretarako, herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatzeko. Ondorioz, legearen hastapen edo oinarririk funtsezkoena honako hau da: hizkuntza-eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzea eta betetzen direla bermatzea.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea**, besteak beste, euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarria izan zen, eta lanpostuen zerrendetan jaso beharreko hizkuntza-baldintza eta betebeharren bidez, aurrerapauso nabarmena egin zen euskara-gaitasuna zuten langile kopuruan. Diziplina araubidearen atalean ere, hizkuntzagatik diskriminazioa dakarren edozein jarduketa hutsegite larritzat tipifikatu zen.

**6/1989 Legearen eguneraketa den Euskal Enplegu Publikoaren 11/2022 Legean** hizkuntzagatik diskriminazioa dakarren edozein ekintza falta oso astuna dela berrestez gain, euskara erabiltzeko hizkuntza-normalizazioarekiko konpromisoa arautzat hartzen da, baita horretarako neurriak ezarri eta betetzen direla gainbegiratzea ere. Horretarako, plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu beharreko neurriak eta jarri behar diren bideak finkatu behar direla ezartzen da.

Geroago **Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak** elementu berriak erantsi zizkion 6/1989 Legeari, eta honako hauek arautu zituen: bete beharreko gutxieneko

baldintzak, plangintzaldiak eta epeak, bost urtaldirako planak egitea... Horrela, 86/1997 Dekretuak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien euskal herri-administrazio guztiei. Gainera, plan horiek jaso beharreko gutxieneko osagaiak ezarri zituen 18. atalean; hau da, normalizaziorako helburuak betetzeko hizkuntza-politika eta horren jarraibide nagusiak ezarri zituen, besteak beste, honako hauek:

- Egungo hizkuntza-egoera.
- Lanpostuen hizkuntza-eskakizunak eta derrigortasun-datak.
- Euskara-maila eta hizkuntza-gaitasunaren prozesuari buruzko informazioa.
- Administratuekiko eta gainerako erakundeekiko ahozko zein idatzizko harremanetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpen-arloetan, hizkuntza-paisaian, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena daukaten kontratazioetan eta bestelako jarduera esparruetan euskararen erabilera eta trataera (hizkuntza-irizpideak).

Bestalde, **Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuek** ere, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza-ofizialen erabilera bermatu behar dutela ezarri zuten.

**1/2023 legegintzako dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak 3. artikuluan** ere honakoa adierazten du:

“Hizkuntza-eskubideak babestea eta euskararen erabilera sustatzea. Honela definitzen duena: Euskal botere publikoek bermatu behar dute hizkuntza-eskubideak baliatzen direla eta euskararen erabilera sustatzen dela emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Horretarako, berdintasun-politikak garatzeko orduan, ziurtatuko dute, beste neurri batzuen artean, interesdunak aukeratutako hizkuntza koofizialean ematen direla zerbitzuak, herritarrentzako prestakuntza-, partaidetza- eta sentsibilizazio-jardueretan hizkuntza-eskubideak bermatzen direla, eta langile eta profesionalentzako jardueretan euskararen erabilera sustatzen dela»

Lege berak genero-ikuspegiaren integrazioaren gainean zera adierazten du:

“Euskal herri-agintek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondorioetarako, honako hau da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketara zehatzak txertatzea”

Printzipio horrek euskal herri-aginteen politika eta ekintzei erreferentzia egiten dienean, euskararen eremuan egiten diren politika eta ekintzak ere aintzat hartzen ditu. Beharrezkoa ikusten dugu, beraz, hizkuntza-politikaren eremuan genero-ikuspegia txertatzen dugun gogoeta egitea, baita (ahal dela) lanerako oinarri batzuk jartzea ere. Azkenik, **Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 13. artikulua**k pertsonen eskubideak administrazio publikoekiko harremanak xedatzen

ditu eta norberaren autonomia erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie herritar guztiei.

Bestalde, 2024an onartu da **19/2024 dekretua, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzea**, eta zenbait berrikuntza ekarri dizkio normalizazio-prozesuari:

**Aplikazio-eremua:**

Dekretu hau euskal sektore publikoko entitateei aplikatuko zaie, egoitza eta bulegoak Euskal Autonomia Erkidegoan izan edo ez, hargatik eragotzi gabe kokatuta dauden lurraldeetako hizkuntza ofizialen erabilera.

Hizkuntza-plangintzan, euskal sektore publikoko erakunde bakoitzak honako hauek egin eta onartu beharko ditu:

- a) Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- b) Plan estrategikoak.
- c) Kudeaketa-planak.

**Kontratazio Publikoei dagokienez:**

Euskal sektore publikoko entitateek egindako kontratazio publikoetako prozedurak gauzatzen direnean herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gerta ez dadin, kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dituzte kontratazio-organoek, baita, hala badagokio, behar diren baliabide ekonomikoak ere, betiere baldintza hauek betez:

**Plan Estrategikoa:**

Dekretuaren arabera, plan estrategikoak finkatu behar ditu plangintzaldi bakoitzerako lortu nahi diren helburuak, hartu behar diren neurriak eta jarri behar diren bideak erakunde batean euskararen erabilera ere zerbitzu-hizkuntza gisa bermatzeko eta lan-hizkuntza gisa areagotzeko, betiere hasierako egoeraren diagnostiko kuantitatibo zein kualitatibotik abiatuta.

Nolanahi ere, plan estrategikoan erakundearen plantillaren egoeraren azterketa eta hizkuntza-eskakizunen eta horien derrigortasun-daten xehetasunak jaso beharko dira.

Plangintzaldi bakoitzean gutxienez bi kudeaketa-plan egin behar dira eta haren egiturak bat etorri behar du plan estrategikoaren egiturarekin. Kudeaketa-plan horietan, plan estrategikoan jasotako helburuak lortzeko proposatzen diren ekintza zehatzak azalduko dira, bai eta ekintzon erantzuleak, epeak eta segimendua egiteko epemugak ere.

Kudeaketa-plan bakoitza onartu aurretik, organo eskudunak aurreko kudeaketa-planaren betetze-maila ebaluatuko du.

**Ebaluazioa eta jarraipenaz hau jasotzen du:**

- Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoan erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du. Aginte-taulako adierazleei dagokienez, entitate bakoitzak haien aldizkako ebaluazioa egin beharko du.
- Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web atarian argitaratu beharko dena. Plangintzaldi bakoitzaren amaierako ebaluazioaren datuak hurrengo plangintzaldiko plan estrategikoa lantzeko behar den hasierako diagnostikorako oinarria izango dira.
- Ebaluazio horiek egiteko, euskal sektore publikoko entitateek erabili ahal izango dute Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-politikan eskumena duen organoak haien eskura jarritako metodologia estatistikoa.

**Hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-daten alorrean, honako hauek dira berrikuntza nagusiak**

- Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen trebetasunetan gaitasun-maila bera behar denean, hizkuntza-eskakizuna simetrikoki adieraziko da. Aldiz, lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, idatzizko zein ahozko adierazpen- eta ulermen-trebetasunetan gaitasun-maila diferenteak behar direnean, hizkuntza-eskakizuna asimetrikoki adierazi ahal izango dira.
- Derrigortasun-datei dagokienez, plangintzaldi bakoitzean, entitateen plan estrategikoa onartzearekin batera, derrigortasun-data berriak ezarriko dira. Dekretuaren 23.2 artikulua zehazten duenez, entitatearen lanpostu-zerrendan derrigortasun-data beteta badago, nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea dena delako lanpostua eskuratzeko eta bertan jarduteko.

IRAKURMENA ETA IDAZMENA	ENTZUMENA ETA MINTZAMENA
A2	B1
B1	B2
B2	C1
C2	C1

**1.2. Donostia Kulturaren testuingurua**

Donostia Kulturak Donostiako herritarrei kultur jarduera eta zerbitzuak eskaintzea du xede nagusi. Horretarako, udal jabetzakoak diren hainbat kultur eraikin eta ekipamenduko kudeaketaren ardura du. Horrenbestez, Donostia Kulturaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta hizkuntza-irizpideak Donostiako Udalekoen ildo beretik osatu dira.

2014an diseinatu zen Euskararen Erabilera Plan Zehatza eta ordutik hona hainbat ekintza jarri dira abian, eta hainbat baliabide eskaini dira euskararen ezagutza, erabilera eta presentzia erakundean handitzeko; besteak beste, lanpostuei hizkuntza-baldintzak ezarri, langileei euskara-maila hobetzeko aukera eta baliabideak eskaini, euskararen gaia lantzeko egitura sortu, hizkuntza-jarraibideak landu eta zabaldu, euskara-eskola berezituak eskaini, zerbitzuetako diagnostikoak egin, euskararen inguruko gogoeta bideratu, barne-erabilera areagotzeko estrategia berritzaileak aplikatu ...

Bilakaera positiboa bada ere, oraindik ere badago zeregina, hizkuntzen arteko benetako berdintasuna lortzeko, eta horretarako daude indarrean Donostia Kulturaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2024-2027) eta hizkuntza-irizpideak.

## 2 PLANAREN OINARRIAK ETA BALIABIDEAK

### 2.1 Plangintzaldi berriaren gidalerroak

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratu dituen VII. Plangintzaldirako gidalerroen arabera, herri-erakundeok dagokigun autonomia baliatuz herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu beharra daukagu; izan ere, legediaren arabera herritarrek bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute eta Administrazioak, aldiz, eskumen hori bermatzeko obligazioa.

Donostia Kulturaren hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko beharrizan hori Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen bitartez gauzatzen dugu; izan ere, plan horien bidez, Donostia Kulturak sustapen-ekintzak abiatzen ditu herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko eta gure erakundeko esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko.

Helburu hau lortzeko, agintari politiko eta teknikoak izango dira, ezinbestean, Donostia Kulturaren hizkuntza ofizialen erabileraren kudeaketa gidatu eta lideratuko dutenak. Eginbide horri ganoraz heltzeko, HPSk eman dituen hainbat aholku kontuan izan ditugu hizkuntza-kudeaketa eraginkorra egiteko.

Izan ere, VII. Plangintzaldiko hiru elementurik funtsezkoenak —egitura, sistematika eta adostasuna— kudeaketari dagozkio; eta era berean, kudeaketak erabateko eragina du erabileran.

Horrela, egiturari dagokionez, hizkuntza-kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzeko beharra kontuan hartuta, hori gauzatzeko sistematika bat ezarri da, agintaritzan dauden pertsonak eta tarteko arduradunak inplikatur.

Bestetik, Donostia Kulturak parte-hartzaile guztien adostasuna, inplikazioa eta elkarlana zaindu eta bilatu ditu. Hala, langileen partaidetza bultzatu da euskararen erabilera sustatzeko konpromiso individual eta kolektiboak hartzeko. Era berean, erakundeak langileekiko konpromisoak hartu ditu, normalizaziorako baliabideak jarriz eta trebakuntzarako erraztasunak emanez, besteak beste.

Aurrekoez gain, euskararen erabileraren sustapenean prozesu arrakastatsuak egin dituzten erakundeen esperientziari erreparatuta, hainbat ondorio azaleratu dira. Besteak beste, EAEko sektore publikoak eskaintza linguistiko aktiboa egin behar duela, hizkuntza hautuaren zama eta estres linguistikoa herritarren bizkarretik kentzeko. Gainera, erakundeek modu proaktiboan parte hartu behar dute euskararen erabileraren aldeko ekimenetan eta Plan honek horretan ere jarri nahi du begirada.

## 2.2 Planaren metodologia, egiturak eta urratsak

Esan bezala, Hizkuntza Politika Sailak (hemendik aurrera HPS) euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko marko eta tresna berriak garatu ditu, eta VII. Plangintzaldirako metodologia eta markoa proposatu ditu: KEMEN, Kudeaketa eta Erabilera Marko Euskararen Normalizaziorako.

KEMENek erakundeetan euskararen kudeaketa, erabilera eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen ditu. Marko berrian lehentasunezko tokia aitortzen zaio kudeaketari, hau da, planak garatzeko egiturari, sistematikari eta elkarlanari. Baina kudeaketa ez da helburua, baliabidea baizik. Beraz, KEMENek kudeaketa eta jarraipenerako adierazleen sistema-eguneraketa ekarri du eta hurrengo hauek dira marko berriaren ezaugarri nagusiak:

- Edozein erakundetan, euskararen erabilera kudeatu eta jarraipena egiteko beharrezko atalak biltzen dituen markoa da.
- Kudeaketa erdigunean jarri da, eta euskararen erabilerari dagozkion adierazleetan eragin handia duten kudeaketa-adierazleak txertatu dira: jarraipena, zeharkakotasuna, kudeaketa sistematikoa, lidergoa, estrategia...
- Adierazleen formulazio positiboa egin da, normalizazio-prozesuaren norabidea markatzeko asmoa.
- Erakunde bakoitzak markoa bere errealitate, ezaugarri eta beharretara egokitzeko aukera dauka.
- Aginte-panela osatu da. Aginte-panelak Euskal Sektore Publikoko erakundeen jarraipenerako gutxieneko adierazleak biltzen ditu (14 adierazle).

Hauxe da KEMEN marko osoa:





Eta honako hau da aginte-panela:

## KUDEAKETA

<b>EUSKARAREN OROKORRA</b>	<b>KUDEAKETA</b>	▶	1. Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.
<b>LIDERGOA</b>		▶	2. Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.
<b>LANGILEAK</b>		▶	3. Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezen.
<b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>		▶	4. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.
			5. Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.

## ERABILERA

<b>ZERBITZU-HIZKUNTZA</b>	<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	▶	6. Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.
			7. Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.
			8. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.
			9. Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.
<b>LAN-HIZKUNTZA</b>	<b>BARNE-HARREMANAK</b>		10. Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.
		▶	11. Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.
			12. Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.
			13. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak
	<b>KANPO-HARREMANAK</b>	▶	14. Euskaraz sortzen dira dokumentuak
	<b>SORTZE HIZKUNTZA</b>	▶	


Lehenago aipatu dugun bezala, entzunaldi-tramiteak igaro dituen EAEko sektore publikoaren euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duen dekretu berriaren arabera, bestek beste, erakunde guztiek eskuratu behar dizkiote Eusko Jaurlaritzari 14 adierazle esanguratsuenen informazioa; gutxienez, plangintzaldiaren lehenengo, hirugarren eta bosgarren urteetan.

Esan bezala, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak osatzeko gidalerro eta adierazle-sistema berriak hartu ditugu aintzat.

Prozesua metodologikoki bideratzeko talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratu dira eta horretarako egiturak sortu dira:

TALDE ERAGILEA	ERABILERA BATZORDEA
<b>PARTAIDEAK</b>	<b>PARTAIDEAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Donostia Kulturako euskara-arduraduna.</li> <li>Elhuyarreko teknikaria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Donostia Kulturako euskara-arduraduna.</li> <li>Euskara Batzordeko kideak.</li> <li>Arloetako zuzendariak.</li> <li>Zuzendari Kudeatzailea.</li> <li>Zinegotzia.</li> <li>Elhuyarreko teknikaria.</li> </ul>
<b>FUNTZIOAK</b>	<b>FUNTZIOAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Prozesua antolatu eta koordinatu.</li> <li>Diagnostikoa osatzeko datuak bildu eta informazioa jaso.</li> <li>Prozesuan zehar gertatzen diren arazoei irtenbideak bilatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Diagnostikoa kontrastatu eta osatu</li> <li>VII. plangintzaldiaren erronka eta lan-ildo estrategikoak landu.</li> </ul>

Eta hurrengo eskema jarraitu da:



### 3 DIAGNOSTIKOA

VII. Plangintzaldiaren hasierako diagnostikoa egiteko V. Plangintzaldiaren bukaerako ebaluazio-datuak erabili ditugu, eta KEMEN markora egokitu ditugu. Adierazle guztiak ez datoz guztiz bat, baina ahalegindu gara adierazleei dagozkion datu ahalik eta errealenak jasotzen.

Horrela, jarraian jaso dugu Donostia Kulturako euskararen erabilera eta presentziaren egoeraren argazki kuantitatibo zein kualitatiboa, KEMEN markoaren arlo bakoitzean erakundea zein puntutan dagoen aztertuta. Eraitza kuantitatiboei dagokienez, hauxe da egoera:

#### KUDEAKETA

ARLOA	ONDORIOAK
<p><b>EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskararen kudeaketa orokorrari dagokionez, ondorio nagusia da erabilera-plana kudeatzeko egiturak badaudela (Euskara Batzordea eta Jarraipen Batzordea).</li> <li>Kudeaketa Planaren jarraipena egiten da, baina hizkuntza-irizpideen jarraipenik ez da egiten.</li> <li>Hizkuntza-irizpideen jarraipena sistematizatu beharra dago.</li> </ul>
<p><b>LIDERGOA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Oro har, arduradun teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute eta parte hartzen dute planaren diseinuan, garapenean eta jarraipenean.</li> <li>Donostia Kulturako atal guztietako arduradunek ez dute parte hartzen planaren garapenean eta jarraipenean.</li> <li>Arduradun politikoak jarrera proaktiboa du planaren garapenean eta jarraipenean.</li> </ul>
<p><b>LANGILEAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kudeaketa-planari zein hizkuntza-irizpideei buruzko informazioa modu orokorrean jasotzeak ondorio zuzena dauka euren lan-jardunari lotutako hizkuntza-eginkizunen betetze-mailan.</li> <li>Hizkuntza-irizpideen berri ematen zaie langileei, baina neurtu beharko da ea dagozkien hizkuntza-irizpideak ezagutzen dituzten.</li> </ul>
<p><b>GAITASUNA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erakundean euskara-gaitasun handia dago (ezagutza unibertsala)</li> <li>Arduradun politikoaren kasuan, %100 gai da bere funtzioak euskaraz betetzeko.</li> </ul>
<p><b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan, oro har, hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</li> <li>Edonola ere, ahulezia hizkuntza-klausulen jarraipenean dago. Kexak kontuan hartzen dira, baina ez da jarraipen sistematikoa egiten.</li> </ul>

- Azken urtean, zenbait zerbitzuren jarraipena egiteko proba-pilotua jarri da abian.

## ERABILERA

### Zerbitzu-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
<b>IRUDIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har, irudiarekin lotutako edukiak (errotulazioa, argitalpenak, iragarkiak, sare sozialak edota webgunea) ele biz daude.</li> <li>• Erakundearen agerraldietan instituzionaletan (prentsaurrekoak...) hizkuntza-irizpideak kontuan izaten dira eta beti egiten da gutxienez sarrera euskaraz, baina geroko interbentzioak hizlariaren arabekoak izaten dira.</li> <li>• DK-k zuzenean antolatzen ez dituen ekintzen komunikazioan, batzuetan, ez dira hizkuntza-irizpideak betetzen.</li> </ul>
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrekiko harremanetarako idatzizko elementu guztiak ele bietan daude, eta, oro har, euskaraz eskatzen dutenei euskaraz erantzuten zaie, ahoz zein idatziz.</li> <li>• Euskarazko eskaerari euskaraz erantzuten zaio eta, oro har, proaktiboki ere jokatzeko dute. Donostia kultura osatzen duten guztiek oso barneratuta dute herritarren eskatzen duen hizkuntzan erantzun behar zaiola; bai ahoz, baita idatziz ere.</li> <li>• Garrantzitsua da azpikontrataturako harrerako langileek ere euskarari lehentasuna ematea; batez ere, euskarazko ekintzetan.</li> <li>• Ikastaro, hitzaldi eta jardunaldiak: egile-ikastaroetan, hizkuntza-irizpideak baino egileak dira irizpide nagusia, eta eskaintza nagusiki gaztelaniaz da.</li> </ul>

### Lan-hizkuntza

ARLOA	ONDORIOAK
<b>BARNE-HARREMANAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara-gaitasun handia dago eta lan-bileretako eta barne-harremanetako idatziak ele bietan egiten dira ehuneko handi batean.</li> <li>• Ebaluazioaren arabera, idatzizko barne-komunikazioetan, % 43 euskaraz egiten da eta % 49 ele bietan.</li> <li>• DK-ko langileen % 90 euskalduna da eta baldintza onak daude barne-komunikazio orokorretan euskararen aldeko urrats kualitatibo bat emateko.</li> </ul>

<p><b>KANPO-HARREMANAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>EAEko Administrazio publikoekin, oro har, euskaraz edo ele bietan izaten dira harremanak, ahoz nahiz idatziz. Adibidez, GFAko Ogasuna eta Kulturarekin euskaraz izaten da idatzizko harremana.</li> <li>Enpresa pribatuekiko harremanetan euskara gutxiago erabiltzen da.</li> </ul>
<p><b>PRESTAKUNTZA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntzan euskarazko ikastaroen ehunekoa baxua da; % 30 euskaraz.</li> <li>Dagoen gaitasuna kontuan izanda, eta hizkuntza-irizpideak oso argiak direla kontuan izanda, 3. eta 4. HE dutenek ikastaroak euskaraz egitea, eta 2. HE dutenek ikastaroak euskaraz egin ditzaten sustatzea, Euskara Planean jasoa dagoen moduan.</li> </ul>
<p><b>BALIABIDE INFORMATIKOAK</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sistema eragilea euskaraz dutenen ehunekoa nahiko altua da, baina ele bietan daudenen kasuan, erabilera bestelakoa da.</li> <li>DK-ko hizkuntza-irizpideetan jasota dago, 2. HETik gorako maila duten langileei programa, aplikazio nahiz tresnen euskarazko bertsioak instalatu beharko litzaizkieke eta horiek erabiltzeko beharrezko trebakuntza eskaini.</li> </ul>
<p><b>SORTZE-HIZKUNTZA</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Barneko idatzizko dokumentuak itzultzen dira; baina erakundean euskara-ulermena bermatuta dagoen kasuetan, euskara hutsez egiteko aukera dago.</li> </ul>

Edozein modutan, informazio horretan sakondu nahi izanez gero, erakundeko euskararen egoeraren gaineko diagnostiko osoa jasotzen duen dokumentura jo.



**VII. PLANGINTZALDIA**  
 Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana  
 Donostia Kultura

**DIAGNOSTIKOA**

## 4 EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

### 4.1 Eragin-eremua

Plan honen eragin-eremuak Donostia Kultura eta bere ekipamendu guztiak hartzen ditu, eta atal guztietara hedatuko da.

### 4.2 Eragin-epea

Planaren eragin-aldia onartzen den egunean hasi eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza-normalizaziorako prozesuaren VII plangintzaldia amaitzen den egunean.

### 4.3 Planaren erronkak eta helburu estrategikoak

Jarraian, 2027an non egon nahi dugun jaso dugu, horrela definitu ditugu plan honen erronka nagusiak:

KUDEAKETA	
ERRONKA	▶ Erabilera Plan eta hizkuntza-irizpideen eta jarraipena sistematizatzea
ERABILERA	
ERRONKA	▶ Donostia Kultura euskararen erabileran erreferente izatea, barne zein kanpo harremanetan

Era berean, erronka horiek lortzeko zer egin behar dugun adostu dugu, eta horrela definitu ditugu planaren erronkei eusteko helburu estrategikoak:

## HELBURU ESTRATEGIKOAK

<b>KUDEAKETA OROKORRA</b>	Erabilera Plan eta Hizkuntza Irizpide esanguratsuenak kudeaketa orokorrean txertatzea
<b>LIDERGOA</b>	Arduradun tekniko eta politikoen inplikazioa eta proaktibotasuna sustatzea.
<b>LANGILEAK</b>	Hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egitea
<b>HIZKUNTZA-KLAUSULAK</b>	Jarraipena sistematizatzea eta hizkuntza-klausulen jarraipena egitea.
<b>IRUDIA</b>	Irudian hizkuntza-irizpideak betetzen jarraitzen dugula ziurtatzeko jarraipena egitea
<b>HERRITARREKIKO HARREMANAK</b>	Langileek proaktibotasunez jokatzeko herritarrekiko harremanetan, zerbitzu-hizkuntza % 100ean bermatzeko
<b>BARNE-HARREMANAK</b>	Euskararen erabilera areagotzea eta hizkuntza-ohituretan eragitea.
<b>KANPO-HARREMANAK</b>	Erakunde publikoekin ditugun harremanetan (bereziki, Eusko Jurlaritzaren eta Aldundiarekin) euskarazko harremana areagotzea.
<b>PRESTAKUNTZA</b>	Euskaraz egin daitezkeen ikastaroak euskaraz eskaintzea. Prestakuntza plana egiterakoan hizkuntzaren aldagaia kontuan hartzea.
<b>BALIABIDE INFORMATIKOAK</b>	Baliabide informatikoak euskaraz erabiltzeko sustapen-lana egitea eta neurriak hartzea.
<b>SORTZE HIZKUNTZA</b>	Euskaraz sortzen diren dokumentuak areagotzea.

#### 4.4 Hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak eta betetze-maila

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuaren 25. artikulua araberan, derrigortasun-indizeak adierazten du entitate bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna izan behar duten lanpostuen kopuru osoaren ehunekoa.

Honela kalkulatu da derrigortasun-indizea: **DI= EUSKALDUNAK + (IA-EUSKALDUNAK/2)**

Horretarako, kontuan hartuko da EAeko biztanleen euskararen jakite-mailari buruzko informazioa, Biztanleria eta Etxebizitza Zentsu edo Estatistikaren azken datuetan oinarrituta, eta, hala badagokio, plangintzaldi bakoitzaren hasieran indarrean dauden balidazio-taula orokorretan.

Euskal sektore publikoko entitate bakoitzari dagokion indizea kalkulatzeko, haren jardunaren lurralde-eremua hartuko da kontuan. Hala ere, lurralde-eskumen mugatuagoa duten lurralde-deskontzentratutako unitateek beren jardura-eremu espezifikoari dagokion indizea bete beharko dute.

Horren arabera, VII. plangintzaldi honetan, **Donostia Kulturaren nahitaez bete beharreko indizea %57,3 da**. Derrigortasun-indize hori 2021eko erroldako datu soziolinguistikoaren arabera ateratakoa da (EUSTATEk eman dituen 2021eko Biztanleria eta Etxebizitzako Estatistikaren arabera. 2021/01/01).

##### **Derrigortasun-indizearen betetze-maila**

19/2024 Dekretuaren 22. artikuluan xedatuta datorren moduan, hizkuntza-eskakizunak zehazten du lanpostua betetzeko eta bertan jarduteko behar diren euskararen gaitasun-mailen multzoa. Euskal sektore publikoko entitateetako lanpostu bakoitzak bere hizkuntza-eskakizuna izango du esleituta, eta eskakizun hori, derrigortasun-datarekin batera –hala badagokio–, nahitaez adierazi beharko da entitatearen lanpostu-zerrendan.

19/2024 Dekretuaren 23. artikulua araberan, lanpostu bati dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen denean, euskal sektore publikoko entitateen zerbitzuko langileei aitortzen zaie lanpostu horri dagozkion eginkizunak euskaraz betetzeko behar duten gaitasuna.

Era berean, 23.2 artikulua zehazten duenez, entitatearen lanpostu-zerrendan derrigortasun-data beteta badago, nahitaezkoa izango da hizkuntza-eskakizuna betetzea dena delako lanpostua eskuratzeko eta bertan jarduteko.

19/2024 Dekretuaren 24. artikuluan zehazten denez, derrigortasun-datak adierazten du lanpostuari ezarritako hizkuntza-eskakizunak noiztik behar duen egiaztatuta izan. Derrigortasun-datatik aurrera, hizkuntza-eskakizuna bete beharko da dagokion lanpostu eskuratzeko eta bertan jarduteko, dekretu honetan salbuespenerako aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Behin derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostua betetzen duenak entitatearen hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan agindutakoaren arabera bete beharko ditu bere eginkizunak. Euskal sektore publikoko entitateek beren hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan jaso dezakete ezen hizkuntza-eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostu bat betetzen duten langile guztiek euskara ere lan-hizkuntza gisa erabili beharko dutela, hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badute. (24.3)



Plangintzaldi bakoitzean, entitateen plan estrategikoa onartzearekin batera, derrigortasun- data berriak ezarriko dira, hala dagokio. Salbuespen gisa, derrigortasun-datak ere ezarriko dira, baldin eta lanpostuen dotazioak gehitu edo gutxitzen badira eta, horren ondorioz, dauden derrigortasun-datak nahitaez bete beharreko indizeari egokitu behar bazaizkio. (24.4)

Donostia Kulturaren kasuan, honako hau da datua:

LANPOSTU KOPURUA	DERRIGORTASUN-DATADUNAK	VII. PLANGILTZALDIAREN NAHITAEZKO DERRIGORTASUN-INDIZEA
226	%92,4	% 57,3

19/2024 Dekretuaren 24.4 artikulua xedatutakoaren arabera, plangintzaldi bakoitzean, entitateen plan estrategikoa onartzearekin batera, derrigortasun- data berriak ezarriko dira, hala dagokio. Beraz, VII. Plangintzaldian 19/2024 Dekretuaren ezarpenak betetze aldera, derrigortasun-data berriak ezarriko ditu.

## 5 2024-2027KO PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2022ko planaren ebaluaziotik abiatuta, 2023ko diagnostikoa osatu da, plan estrategiko berriaren abiapuntua, hain zuzen ere.

Aurreko planaren ebaluazio-datuetan oinarrituta KEMENeko arlo guztiei buruzko hausnarketa kualitatiboa egin da. Horretarako, arloz arloko balorazioa egin genuen Erabilera Batzordean eta egungo egoeraren berri emateaz gain, indarguneak eta zer hobetuak identifikatu genituen. Esan bezala, hausnarketa kualitatibo horri esker, 2027ra bitartean lortu nahi diren erronkak eta horretarako helburu estrategikoak identifikatu ditugu.

Aipatzekoa da, KEMENeko Aginte Panela osatzen duten adierazleak urtero garatu eta ebaluatuko direla, sistematikoki.

Jarraian, erronka eta helburu estrategiko horiek lantzeko adierazleak jaso ditugu, horixe izango da gure ibilbide-orria, gure plan estrategikoa, alegia.

1. ARDATZA	KUDEAKETA				
Kudeaketaren erronka	Erabilera Plan eta hizkuntza-irizpideen eta jarraipena sistematizatzea				
ARLOA	ZK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK		
			BISIOA		
			HASIERAKO EGOERA 2022 %	AURRE KUSITAKO EGOERA 2027 %	ALDEA igoera %
1.0.1EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	100	100	0
	2	Erabilera plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	50	80	30
1.0.2 LIDERGOA	4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	100	100	0
	5	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	50	100	50
1.0.3 LANGILEAK	7	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	25	50	25
	8	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	70	100	30
	9	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	60	80	20
1.0.4 GAITASUNA	12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	98%	98	0
	13	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	98%	98	0
1.0.6 HIZKUNTZA KLAUSULAK	19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	25	40	15
	20	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	25	40	15

2. ARDATZA		ERABILERA				
Erabileraren erronka		Donostia Kultura euskararen erabileran erreferente izatea.				
ARLOA	ZK	ADIERAZLEAK	HELBURUAK			
			BISIOA			
			HASIERAKO EGOERA 2022	AURRE KUSITAKO EGOERA 2027	ALDEA igoera %	
2 - 1 Z E R B I T Z U H I Z K U N T Z A	2.1.1 IRUDIA	23	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	42	50	8
	2.1.2 HERRITARREKIKO HARREMANAK	25	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	90	100	10
		26	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	100	100	0
		27	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	80	80	0
		28	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	90	100	10
		29	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	70	100	30
2 - 2 L A N H I Z K U N T Z A	2.2.1 BARNE-HARREMANAK	32	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	68	75	7
		33	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	62	70	8
		34	Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	40	50	10
		35	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	90	100	10
	2.2.2 KANPO- HARREMANAK	40	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	94	100	6
	2.2.3 PRESTAKUNTZA	44	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	30	50	20
	2.2.4 BALIABIDE INFORMATIKOAK	47	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	70	80	10
	2.2.5 SORTZE-HIZKUNTZA	48	Euskaraz sortzen dira dokumentuak	43	50	7

## 6. KUDEAKETA PLANA

Erabilera Planean zehaztutako helburuak erdiesteko ekintzak, arduradunak eta epeak zehaztu ditugu:

1. ardatza	KUDEAKETA						
	ARLOAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2024	2025	2026	2027
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Hiru hilean behin Euskara Batzardea (EB) bildu eta Jarraipen Batzardea (JB) bildu	Euskara Batzardea eta Jarraipen Batzardea	X	X	X	X	
	Hizkuntza-irizpideak neurtzeko inkesta egin (Udalaren ereduak), plangintzaldiaren hasieran, erdian eta amaieran	Administrazioa eta baliabideak	X		X	X	
	Inkesten datuak euskara-egituretara eraman (Euskara Batzardea, Jarraipen Batzardea eta Zuzendaritza); eta balizko neurriak hartu	Zuzendaritza Taldea	X		X	X	
LIDERGOA	Zuzendaritza bileretan euskarako gaien laburpena egin, urtean 4 aldiz.	Zuzendaritza Taldea	x	x	x	x	
LANGILEAK	Hizkuntza-irizpideen inguruko pilulak bidaltzen jarraitu.	Administrazioa eta baliabideak	x	x	x	x	
	Hizkuntza-irizpideak neurtzeko inkesta egin (Udalaren ereduak), plangintzaldiaren hasieran, erdian eta amaieran	Administrazioa eta baliabideak	x		x	x	
GAITASUNA	Lanpostuen katalogoaren azterketa egin (erretiroak kontuan hartu)	Giza Baliabideak eta zuzendaritza taldea		x	x	x	
	Azterketaren ostean, ahal diren neurriak hartu (kontuan izan dagokion HE baino altuagoa izateari balioa ematea)	Zuzendari-kudeatzailea eta administrazio kontseilua		x	x	x	
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Urtean pare bat kontratu aukeratu eta bilerak egin jarraipena egiteko (lehentasuna herritarrekin harreman zuzena dutenak)	Kontratuen arduradunak eta euskara-arduraduna	x	x	x	x	
	Kontratuen jarraipenerako ereduak aztertu eta jaso.	Administrazioa eta baliabideak eta euskara arduraduna		x			

2. ardatza	ERABILERA						
	ARLOAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	2024	2025	2026	2027
IRUDIA	Dirulaguntza, lagapen... bidezko elkarte eta eragileekin bilera egin DKren hizkuntza-irizpideen aurkezpena egiteko.	Sailtako zuzendariak	X	X	X	X	
HERRITARREKIKO HARREMANAK	Euskaraz aritzeko identifikagarriak jarri ( <i>Hemen euskaraz</i> ), eta hizkuntza-irizpideen lanketa egin langileekin.	Administrazioa eta baliabideak	X				
	Hizkuntza-irizpideen eta Erabilera-planaren gaineko aurkezpenak egin zentro/atal zehatzetan	Administrazioa eta balibdeiak, EB eta JB	X				
BARNE-HARREMANAK	Euskarazko atal izatera iristeko pilotatzeak abian jarri/jarraipena eman: GGBB, Komunikazioa eta Haur Liburutegia	Euskara Batzordea eta Jarraipen Batzordea	X	X			
	Euskarazko atal izan daitezkeenak identifikatu: Kultur Etxeak eta Liburutegiak	Euskara Batzordea eta Jarraipen Batzordea			X	X	
	EUSLE dinamika abian jarri	Sailtako zuzendariak	X				
KANPO-HARREMANAK	Euskara hutsez egin daitezkeen komunikazio guztiak identifikatu (Donostiako Udala, GFA eta EJ), eta euskaraz hutsez egin.	Sailtako zuzendariak		X			
PRESTAKUNTZA	Prestakuntza-plana osatu eta hizkuntzaren aldagaia kontuan izan; euskaraz eskaini daitezkeen prestakuntzak euskara hutsez eskaini.	Administrazioa eta baliabideak eta sailtako zuzendariak	x	x	x	x	
BALIABIDE INFORMATIKOAK	DonostiaTIK erakundearekin harremanetan jarri, euskarazko bertsioetan dauden akatsak konpontzeko; eta ondoren langile guztiei komunikatu	Administrazioa eta baliabideak eta sailtako zuzendariak	X				
SORTZE-HIZKUNTZA	Euskaraz sortzeko ditugun zailtasunak identifikatu eta trebakuntza eskaini.	Administrazioa eta baliabideak	X		X		

## 7 JARRAIPIEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA

19/2024 Dekretuaren arabera, Euskal sektore publikoko entitate bakoitzak bere plan estrategikoan erabilitako adierazleen jarraipen sistematikoa egingo du, planifikazioan horretarako ezarriko dituen bitartekoen bidez.

Bestalde, Plangintzaldiaren bi unetan, gutxienez ere –plangintzaldiaren erdialdean eta amaieran–, entitateek barne-ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, entitatearen web-atarian argitaratu beharko dena.

Beraz, oso garrantzitsua da Planaren etengabeko segimendua eta ebaluazioa egiteko sistema bat zehaztea. Euskara Batzordeak eta Jarraipen Batzordeak kudeaketa-planean jasotako neurrien segimendu jarraitua egingo du, planaren Excel dokumentuan <sup>1</sup>bertan. Segimendu horren bidez aurreikusitako ekintzen betetze-maila ezagutuko dugu urtez urte.

Ekintzen betetze-maila modu sinplean jasoko dugu urtero: ekintzak erabat burutu diren, erdizka burutu diren edo burutzeke geratu diren erregistratuz. Horrez gain, urte bakoitzean betetze-maila (egoera) erregistratzeaz gain ekintza bakoitzarekin lotuta zer egin den ere erregistratu ahal izango dugu, betetze-mailaren ondoan oharrak jasoz.

KUDEAKETA			
ARLOAK	EKINTZAK	ARDURADUNAK	EGOERA
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	Hiru hilean behin Euskara Batzordea (EB) bildu eta Jarraipen Batzordea (JB) bildu	Euskara Batzordea eta Jarraipen Batzordea	Eginda
	Hizkuntza-irizpideak neurtzeko inkesta egin (Udalaren eredu), plangintzaldiaren hasieran, erdian eta amaieran	Administrazioa eta balibideak	Hasi gabe
	Inkesten datuak euskara-egituretara eraman (Euskara Batzordea, Jarraipen Batzordea eta Zuzendaritza); eta balizko neurriak hartu	Zuzendaritza Taldea	Bidean
LIDERGOA	Zuzendaritza bileretan euskarako gaien laburpena egin, urtean 4 aldiz.	Zuzendaritza Taldea	
LANGILEAK	Hizkuntza-irizpideen inguruko pilulak bidaltzen jarraitu.	Administrazioa eta balibideak	
	Hizkuntza-irizpideak neurtzeko inkesta egin (Udalaren eredu), plangintzaldiaren hasieran, erdian eta amaieran	Administrazioa eta balibideak	
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	Urtean pare bat kontratu aukeratu eta bilerak egin jarraipena egiteko (lehentasuna herritarrekin harreman zuzena dutenak)	Kontratuen arduradunak eta euskara-arduraduna	

<sup>1</sup> Ikusi Donostia Kultura\_Erabileria Plana 2024-2027.xlsx

## 8 PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da, besteak beste, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan.

Euskara Plana guztiontzako plana da eta guztiok dinamikaren parte sentitzeko komunikazio eraginkorrari eutsi behar diogu. Planaren garapenean ere, Euskara Batzordean behar besteko garrantzia emango diogu komunikazioari, eta, aldiro, bideratzen diren ekintzen inguruko informazioa zabaltzeko moduak aztertuko ditugu.

